

Eskari zka.:/ Solicitud nº.:

Data / Fecha:/...../.....

Ordua-min / Hora-min: ;

(Administrazioak betetzeko / A cumplimentar por la Administración)

**LEHEN ALDIZ INSKRIBATZEKO ESKABIDEA. EGILEAK 2 INPRIMAKIA
ORRI ELEKTRONIKOA (WEB ORRIA) EDO MULTIMEDIA ORRIA**

IZENBURUA¹

OBRA MOTA

LEGE GORDAILUAREN ZENBAKIA (egonez gero)DIBULGAZIO DATA (egonez gero)

GOITIZENA EDO ZEINUA²:

(Eremu hori ez da derrigorrean bete behar. Egileak web orriko edo multimedia orriko jatorrizko edukien gaineko eskubideak goitzen edo zeinu batekin erregistratu nahi dituzenean bakarrik bete behar da.)

- Ez-anonimoa.
- Anonimoa. Kasu horretan, obra jada dibulgu bada, adierazi jabetza intelektualeko eskubideak baliatuko dituen pertsona fisiko edo juridikoaren izen-abizenak edo izendapena eta nortasun agiriaren zenbakia

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKOA:

1. Memoria bat, paperean, behar bezala orrikatuta eta koadernatuta. Memoria horrek banan-banan erlaxionatuko du erregistratu beharreko lan bakoitza, eta berau jasotzen duen fitxategi informatikoaren izenarekin identifikatuko du. Egilearen izen-abizenak berariaz adierazi beharko dira.
2. Orri elektronikoan (web orrian) edo multimedia orrian jasotako sorkuntza bakoitza identifikatzeko eta deskribatzeko baldintza³ zehatzak.
3. Web orriaren edo multimedia orriaren kopia bat. Erregistroak edukia aztertu ahal izateko moduko euskarrian aurkeztu behar da (CD-ROM, DVD), aurrez tratatu beharrik izan gabe PC batean irakurri ahal izateko moduan, eta euskarrian izenburua eta egile(ar)en izen-abizenak adierazita dituela.

OHARRAK:

- a) Inprimaki hau Egileak 1 inprimakiaren osagarria da, eta horrekin batera aurkeztu beharrekoa.
- b) Egileak 2 inprimaki bakarria aurkeztuko da eskabide bakoitzarekin: obra motaren arabera dagokiona.
- c) Orri elektronikoak (web orriak) ez dira obra mota bat, edukiak dibulgatzeke modu bat baizik. Hortaz, orriaren barruan dauden jatorrizko sorkuntza literario, zientifiko edo artistikoak babestuko dira, ez orria bera. Eskabidea aurkeztean espedientearen zehaztutako sorkuntzak bakarrik babestuko dira. Beraz, gerora orrian sartzen den beste edozer obra ez da babestuko. HTMLa (hipertestuaren lengoia) ezin da erregistratu, ez baita programazioa, orriko edukiak maketatzeke eta aurkezteke modua baizik.
- d) Multimedia ez dira obra mota bat; aitzitik, zenbait sorkuntza aplikazio informatiko baten bidez batera eta aldi berean aurkezteke modua da. Hortaz, multimediararen barruan dauden jatorrizko sormen literario, zientifiko edo artistikoak babestuko dira, ez multimedia bera.
- e) Orri elektronikoan (web orrian) edo multimediararen lehendik existitzen ziren sorkuntzak sartuz gero, sorkuntza horien titularren baimenak aurkeztu beharko dira, jabari publikokoak izanez gero salbu. Jabari publikokoak izanez gero, egiaztatu egin beharko da hori. Aipatutako baimenak dokumentu pribatu batean jaso daitezke, baina, hala ere, baimen emaileen sinadura jaso behar dute, notarioak edo Jabetza Intelektualaren Erregistroko funtzionario publikoak legitimatuta.
- f) Eremu guztiak bete behar dira, nahitaezkoak ez direnak salbu. Bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari, falta diren agiriak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio hori egin ezean bertan behera geldituko dela bere eskaera, horretarako ebazpena eman ondoren.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

SINATUTA, ESKATZAILEA(K)/TITULARRA(K)

¹ Alearen izenburua hitzez hitz ipini; "Egileak 1" inprimakian adierazitako berbera.

² Eremu hori betez gero, goitzenak edo zeinuak alearen azalean ere agertu beharko du.

³ Baldintza horiek Erregistroaren Erregelamenduko 14. artikuluan zehazten dira kasu bakoitzerako